

Elkarrizketa, Espainiako Oinarrizko Errentaren Sarearen ordezkaria den, Julen Bollaini

1. Parte hartu duzu Gaztebi proiektuan - <https://www.ehu.es/es/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/gaztebi> Zeintzuk dira ondorio nagusiak?

GAZTEBI (Gazte Basic Income) proiektua oinarrizko errenta politika ekonomiko eta sozial gisa eskaintzen dituen aukerak aztertu eta eztabaidatzeko helburuarekin eraiki zela. Hau da, aztertzeko ea oinarrizko errenta gazteei finantza-segurtasuna emateko, oinarrizko behar materialak betetzen direla bermatzeko, bai eta garapen pertsonal eta kolektibo askeago batean aurrera egiten dela bermatzeko baliagarria den aztertzeko.

Horretarako, hurrengo helburuei, hainbat ekintzen bitartez, erantzun bat ematen saiatu gara:

1. Gazteriaren arloan lan egiten duten erakundeek eta gizarte-eragileek BGOEri buruz duten ikuspegia aztertu, bai eta honek gazteei espazio horietan laguntzeko izan ditzakeen ondorioak.
2. Unibertsitateko ikasleek enpleguarekiko dituzten gizarte-jarrerak eta etorkizunera begira dituzten ikuspegiak aztertu, baita BGOE bat ezartzeak haien finantza-segurtasuna bermatzeko eta bizi-proiektuetan aurrera egiteko eskain diezazkiekeen aukerei buruzko pertzepzioak ere.
3. BGOEren proposamena zabaltzeko eta eztabaidatzeko gune bat ireki, neurri horren ezaugarriei eta inplikazioei buruzko gizarte-ezagutza zabaltzeko.

Hau guztia hiru ekintzen bidez eraman izan da aurrera. Lehenik eta behin, eta BGOEren ezaugarriei eta inplikazioei buruzko ezagutza eta eztabaida unibertsitateko gazteriarengana hurbiltzeko asmoz, baina baita gizartearengana ere, ikus-entzunezko hainbat pilula egin ziren. Pilula hauek, BGOEaren inguruko hausnarketa-tailerretan erabiliko ziren. Bigarrenik, hainbat gizarte-, sindikatu- eta erakunde-erakunderekin taldekako elkarrizketak egin ziren helburu bikoitzarekin: batetik, hirugarren eta azken ekintzan erabili beharreko galdetegi bateratzea eta balioztatzea, eta, bestetik, agenteek BGOEarekiko eta gazteen egoerarekiko dituzten usteak ezagutzea. Azkenik, eraikuntza partekatu baten ondoren sortutako galdetegi bat banatu zitzaizen Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) 709 ikasleri. Galdetegi honen bidez lortutako erantzunak, unibertsitateko ikasleek enpleguarekiko dituzten gizarte-jarrerak eta etorkizunerako dituzten ikuspegiak, bai eta BGOE bat ezartzeak beren finantza-segurtasuna bermatzeko eta beren bizitza-proiektuetan aurrera egiteko eskain diezazkiekeen aukerei buruz dituzten pertzepzioak aztertzeko erabili izan dira.

Ekintza hauen ondorioz lortu ditugun ondorioak anitzak dira. Helburua nagusia, alegia, gazteen %67 Euskadin oinarrizko errenta bat ezartzearen alde dagoela izango litzateke; %13.2, aurka, eta %19.8, berriz, ez da posizionatzen. Ikasleen %78.4, zehazki, ados dago oinarrizko errentaren izaera indibidualarekin, %73.8 errenta hori erreforma fiskal progresibo eta birbanatzaile baten bidez finantzatzearen alde, eta %69 bat dator errenta horren izaera unibertsalarekin.

Dirua nola gastatuko luketen inguruan ere argi daukate gazteek. Unibertsitateko ikasleen %51k lehen mailako premiei aurre egiteko erabiliko luke (alokairua, argindarra edo elikadura-gastuak, esaterako) oinarrizko errenta, %36k etorkizunerako aurreztuko luke, %29k prestakuntza-prozesuan inbertituko luke, eta %29k emantzipatzeko emango lioken aukera aipatu ditu.

Bestalde, elkarrizketatutako gazteen %81ek oinarrizko errentak bere bizi-baldintzak hobetuko lituzkeela uste du. Halaber, %70ek oinarrizko errentak lan-merkatutik kanpo beste lan batzuk egitea ahalbidetuko lukeela (esaterako, zaintza-lanak edo borondatezko lanak) aitortzen du, %59k aberastasunaren banaketa bidezkoagoa izango litzatekeela dio, eta %54k enplegu prekarioa eta laneko abusuak ezabatzen lagunduko lukeela adierazten du.

Hau dena dela eta, gazteek oinarrizko errenta beren bizi-baldintzak hobetzeko eta bizitza libreagoa eta duinagoa izateko neurri gisa oso ondo baloratzen dutela adierazteaz gain, proposamen hau esparru publikoan eztabaidatzeko eta zabaltzeko guneak irekitzea beharrezkoa dela adierazten dute emaitzek, honek ekarriko lituzkeen aukerak eta erronkak sakon eztabaidatu ahal izatea helburu izanik.

2.- Nola baloratzen duzu Euskadiko Oinarrizko Errenta Baldintzagaberako Legegintzako Herri Ekimena -<https://rentabasica.eus/eus/>-?

Zalantzarik gabe, urrats historikoa da Euskadin oinarrizko errentarentzat eta oinarrizko errenta defendatzen dugun pertsonentzat. Pertsona askoren aldetik lan eta esfortzu handiko hilabete luzeak izan dira, eta hori beti da eskertzekoa eta txalotzekoa.

Egia esan, hasieratik eszeptiko samarra izan naiz ekintza horrekin, Euskadiko aniztasuna modu eraginkorrean ordezkatzeko ez zuen uniformetasuna ikusten bainuen. Gainera, uste dut ez direla modu eraginkorrean erabili eskura zeuden bozgorailuak, eta euskal biztanleriaren zati handi bati oinarrizko errenta ezagutarazteko helburuarekin komunikazio-estrategia bat falta izan dela uste dut. Hala ere, nire ustez, herri ekimen honek arrakasta handiz bere helburuetako batzuk lortu dituela esango nuke, eta, bereziki azpimarratuko nuke gai izan dela, ezbehar askoren aurka borrokatuz, Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzeko behar diren 10.000 sinaduren bikoitza baino gehiago lortzea. Sinadurak biltzeko prozesuaren bigarren erdian, sustatzaileak kalean bertan egindako lana bikaina izan da, eta honek bere fruituak eman ditu. Eta, ez nuke aukera hau pasatzen utzi nahi eskerrak eman gabe, modu batera edo bestera, ekimen hau aurrera eramateko egin duten ekarpenagatik. Zorionak zuen lanagatik eta eskerrik asko zuen denboragatik!

Azken finean, akatsez, asmatzez eta ikasketez beteriko prozesu luze eta zorrotza amaitzen den guztietan bezala, etorkizunari begiratzea izan behar da orain helburua. Helburu argiak zehazteko unea da, sare berriak ehuntzen eta oinarria zabaltzen saiatzekoa, oinarrizko errenta defendatzen duen mugimendua gero eta zabalagoa izan dadin lortzeko.

3. Nola baloratzen duzu Legebiltzarrak emandako ezetza Euskadiko Oinarrizko Errenta Baldintzagaberako Legegintzako Herri Ekimenari

https://www.legebiltzarra.eus/ords/f?p=120:10:11384989257205::NO:RP,RIR:P10_ID,P10_TEXT_SHOW,P10_EXPAND:192660,N,N ?

Logikoa denez, erabaki hori espero genezakeena izan arren, oinarrizko errenta defendatzen dugun guztioi huts egiten digu. Klase politikoak gure autonomia-erkidegoko pertsonentzat benetako askatasuna ahalbidetuko lukeen eta pobrezia desagerraraziko lukeen tresnari ezezko bozka eman baitiote. Gogora dezagun pertsona pobre bat ezin dela aske izan.

Hala ere, uste dut herritar ekimen honek klase politikoa bozkaz haratago zuzenean interpelatzen duela. Erabat ulertzen dut alderdi batzuek, zilegitasun osoz, oinarrizko errenta bat ezartzeari buruzko lege-proposamen bat izapidetzearen aurka bozkatzea. Baina horrek ez du esan nahi herritar askok egin dieten interpelazioari jaramonik egin behar ez diotenik. Lortutako sinadura kopuru handiak zuzenean jotzen du klase politikoaren atean, eta oinarrizko errenta bati buruz euskal herritarren artean benetako eztabaida sakona izateko beharrezko bideak ezartzeaz arduradun dela esaten dio. Klase politikoak nahi duelako? Ez, herritarrek 22.000 sinadura baino gehiagorekin eskatu dutelako.

4. Baldintzarik gabeko oinarrizko errentaren aldekoa izanik, zer uste duzu egin behar dela datozen hilabeteetan?

Oso zaila da galdera honi erantzutea. Seguru asko, eseri egin behar gara, denbora hartu, egin dena eta egiteko dagoena baloratu, helburu egingarriak eta ekintzak zehaztu. Uste dut lasaitasun une bat behar dugula burua hotzarekin eta suhartasunetik urrun pentsatu ahal izateko.

Ziurrenik, lehen esan dudana bezala, egin behar dugun bidearen zati handi bat oinarrizko errenta aktiboki defendatzen duen oinarri soziala zabaltzea eta bateratzea da. Eta, zergatik esaten dut hau? Bada, Guy Standingek nire liburuaren epilogoan dioenaren ildotik joanda, erronka handiena politikoa delako. Bere hitzetan, “klase politikoak *espageti* arima du: oro har, balio intelektual gutxi, baina presioa ulertzen du”. Orduan, galdera da ea jende arruntak, zuk eta nik aldaketa bat nahi dugun. Eta aldaketa bat nahi badugu, presioa egin behar dugu hori lortzeko helburuarekin. Azken inkesten arabera, Europako herrialdeetako herritarren %65-70 oinarrizko errenta ezartzearen alde egongo lirakeke. Zerk huts egiten du, orduan, ez dugula lortzen jende hori guztia oinarrizko errenta baten alde borrokatzea? Horregatik diot; gure ikuspegia zabaldu behar dugu; gure gizarteko sektoreen aniztasuna borrokan txertatu behar dugu. Ziur nago bide horrek emango digula etorkizunik oparoena.